

# Albanian Alderdi Demokratikoak aginte komunistarekin amaitu du

Hauteskundeen emaitzen ondoren albaniarrek EEBBen laguntza espero dute

**A**lbaniaiko Alderdi Demokratikoak garaipen handia lortu zuen herenegun egindako hauteskundeetan. Azken datuen arabera botoen % 70etik hurbil ibili zen Sali Berisha-ren alderdia. Alderdi Sozialista (komunista ohiak), berriz, larri larri iritsi zen % 20ra. Orain albaniarrek 'Osaba Samen' laguntzaren zain daude.

K. ALDABE / DONOSTIA

50.000 lagunek gainezka egin zuten Skenderbeg enparantzan Sali Berishak «komunistoaren aurkako garaipena» aldarrikatu zuen atzo, bere atzean William Rayer enbaxadore iparramerikarra zuela.

Alderdi Demokratikoko buruzagiak eta lehen ministro bihurtuko denak adiskidetzeko nazionalerako deia egin zuen baina zehaztu zuen «gure bihotzen adiskidetzeari ari naizela, albaniar orok bere anaia onar dezan, ez naiz ari koaliziozko Gobernuaz hitz egiten».

Alderdi Demokratikoaren garaipenak aginte komunistaren berrogeitazazpi urteen amaiera iragarri du, eta berarekin batera nazioarteko isolamenduari. Baina Gobernu berriak ezin izango du epe motzera Europako herririk pobreena, eta «agian munduko herririk pobreena ere bai» Berisharen hitzetan, murgildurik dagoen krisitik atera. Horretarako nazioarteko laguntza beharko du Albaniak, 1977an Txinarekin zituen harremanak hautsi eta ge-



Alderdi Demokratikoaren jarraitzaileek gau osoa eman zuten hauteskunde emaitzak jasotzen.

ro gainbehera hasi zen ekonomia berpizteko inbertsioen beharra bait du.

## ATZERRIKO LAGUNTZEN ZAIN

Hauteskundeetan lorturiko garaipenaren berri emateko antolatutako mitinean, William Rayer enbaxadore iparramerikarrak laguntza agindu zien Berisharen jarraitzaileei, Alemaniako Legebiltzarreko ordezkari batek Europa eta Alemaniaren laguntza eskaintzen zien bitartean. Albaniarrek, ordea, (errusiarek egin duten bezala) konfidantza handiagoa daukate dolar eta hamburgesaren filosofian ecu-an baino. Horren adibide bezala 50.000 lagun bildu ziren enparantza erdian lau haizetara zabaltzen zen izar eta barren banderatzarra ikustea besterik ez zegoen.

Baina erreforma ekonomikoekin batera, politikoak ere egin beharko dituzte Albanian. Izan ere Gobernu-Lehendakaritza harremanak ezin izango dira orain arte bezalakoak izan. Ramiz Alia lehendakari komunistak, Enver

Hoxha buruzagi stalinistaren oinordekoak bereganatutako botereak kendu egin nahiko dizkio Berisharen Gobernuak. Lehendakari eta Gobernuaren arteko elkarbizitzak zeresan handia izango du etorkizunean.

## Kanpoan uso etxean otso

**A**lbaniaiko hauteskundeetan, beste gatazka baten hasiera egon daiteke, gutxiengo grekoa ez delako kontutan hartu. Honek, berarekin Grezia eta Albaniaren arteko harremanak ere hotz ditzake eta desegonkorrago bihurtu Balkanetan bizi duten egoera. Albaniar eta gutxiengo grekoaren artean haziz doan enfrontamenduak, gutxiengoaren arazoa berpiztu du berrogeitazazpi urtez isolaturik egon den herrian. Korca eta Girocastra eskualdeetan, iturri albaniarren arabera, 60.000 inguru greko bizi dira. Greziaren arabera, ehundaka mila grekoak dira bertan bizi direnak. Hauteskunde junta albaniarrek debekatu egin zuten Eskubideen Alderdiko lau hautagairi hauteskundeetan aurkeztea grekoak zirelako. Serbiako gutxiengo albaniarren eskubideak aldarrikatu eta etxeko gutxiengo grekoari kentzeak ezer on gutxi egingen dio Albania demokratiko berriari.

# Errusiako Batasunaren Ituna atzeratu egin da eta martxoaren 31n sinatuko da

DONOSTIA

Errusiako errepublika eta eskualde autonomoek sinatu behar duten Batasunaren Ituna gauzatzeko bilera atzeratu egin da, eta hasiera batean martxoaren 25a baldin bazen jarritako eguna, azkenik hil honen 31n izango da bilera hau. Larunbatean Tatarstan independentziaren alde agertzeak eragin handia izan du neurri hau hartzeko orduan.

Itun berri hau hamar egun lehenago 14 errepublika autonomok onartu zuten baina beste bi ez ziren ados agertu: Txetxenia eta Tatarstan Errusiatik banatzekotan dira. Lehena Txetxenia izan zen, eta joan zen larunbatean

Tatarstanen izaniko erreferendumean gehiengoa independentziaren alde agertu zen.

Tatarstanen gertatutakoaren oihartzuna, zuzendaritza errusiarrak erreferenduma gelditzeko saioak egin bazituen ere, dagoeneko beste eskualde batzuetara zabaldu da, hala nola, Siberia eta Ipar Kaukasora, eta han ere sezesio nahia piztu liteke. Horregatik, «Batasunaren Ituna ahalik eta azkarren sinatu behar da, beste toki batzuetan berdin gertatu baino lehen», adierazi zuen Iuri Baturin politologoak atzo telebistaz.

Boris Ieltsinek, duen egoera ikusita, desgitearen aurkako txosten batean prozesu honi aurre egiteko neurriak azaldu ditu.

## TATARIAR ABERTZALEEN GARAIPENA

Tatarstanen larunbatean eginiko erreferendumearen emaitzak jakinak dira dagoeneko. % 81ek eman zuen botoa, eta horietatik % 61 subiranotasunaren alde bozkatu zuen. Beraz, gehiengo zabala independentziaren alde azaldu zen, eta tatariar abertzaleek garaipena lortu zuten.

Emaitza hauekin Boris Ieltsin izan da galtzailea, eta Errusia eta Tatarstanen arteko harremanak ez dira hobetuko. «Orain herriak erabakitakoa aurrera atera behar da, zentzua eman behar zaio subiranotasun honi», adierazi zuten independentziaren aldekoek az-



Boris Ieltsin.

ken emaitzak jakitean. Errusiarekin itun bat sinatzeari nahitaezkoa erizten diote abertzaleek, eta bertan Errusiak Tatarstaneko jabetzak tatariarrei dagozkiela onartu beharko dutela uste dute.

## LABURREAN

### ARABIARREK

itxaroteko eskatu diote NBERi

Herri arabiarrek Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari itxaroteko eskatu diote Libiaren kontrako zigorrak ezartzeko, harik eta Haga-ko Nazioarteko Auzitegiak herri hau eta EEBB, Erresuma Batua eta Frantziaren arteko gatazkan epaia eman arte. Bi hegazkinen aurkako atentatua ari dira aztertzen Hagan, Libiako Gobernuak partehartzerik izan zuen ala ez erabakitzeko, eta epaia eman aurretik NBERi parterik ez hartzea nahi dute herri arabiarrek ●

### TXINA:

sindikalista ez da manifestatuko

Han Dongfang-ek, Txinako lehendabiziko sindikalista disidenteak atzo adierazi zuen Gobernu txinatarrak hartutako erabakia errespetatuko duela eta ez duela Legebiltzarren aurrean manifestaziorik egingo, sindikatu independenteak legeztatzea eskatzeko. Dena den, Han Dongfangek ez duela etsiko adierazi zuen ●

### ATLANTISEN

jaurtiketa atzeratuta

Atlantis transbordadore espaziala ez zen aineratu atzo, hidrogeno eta oxigeno ihesak zituelako. Cape Canaveral-etik irten behar zuen atzo Atlantisek, baina ihesak zein lekutik irteten ziren somatzeko astirik izan ez zuten, NASAko agintariek aineratzea bertan behera utzi zuten, jaurtiketa egiteko apenas sei ordu geratzen zirenean ●

### EEBBek Patriot

misilen salmenta ikertuko dute

Estatu Batuetako ikerketa komite berezi batek atzo ekingo du Israelen Txinari Patriot misilak edo bere teknologiaren berriak saldu dizkion salaketak ikertzeari. Talde hau atzo iritsi zen Israelera eta han hasiko dituzte ikerketak. Orain arte Txinak eta Israelen, zenbait militar iparramerikarrek egin salaketak ukatu egin dituzte ●